

**Jone**

“Diskoa esku artean izanda lasaitasuna sentitu dut”

- ▣ *Ezpalak*
- ▣ *Argitalpenak*

- ▣ *Denbora-pasak*
- ▣ *Makina bat kontu*

Ihesi

Islandia, izotzak suari begiratzen dionean

ARGIA

# erdiko kaiera

kultura eta aisia

## Zilarrezko eztei androideak

Duela 25 urte estreinatu zenean inork gutxik espero zuen *Blade Runner* filmak gaur egun zinemaren historian duen itzal luzea lortuko zuenik. Phillip K. Dick idazlearen *Do Androids Dream of Electric Sheep?* (euskaraz *Amesten al dute androideek ardi elektrikoekin?*) nobelan oinarritutako maisulanak hainbat gorabehera izan zituen pantaila handira iritsi aurretik.

ION OLANO CARLOS





# Malkoak euritan ez bezala

“MOMENTU HORIEK GUZTIAK denboran galduko dira, malkoak euritan bezala” esaldiarekin amaitzen da *Blade Runner* filma. Pelikulari ez zaio halakorik gertatu. Malkoak euritan ez bezala, denborak on egin dio. 1982 urteko ekainaren 25ean estreinatu zuten AEBetako 1.290 zine aretotan. Lehen asteko diru-biltzea negargarria izan zen: sei milioi dolar eskas. Hurakan batek eraman zituen berarekin zine-ikusle gehienak: *E.T.* izeneko traganarruak. Kritikak ere gozotik adina eman zion gazitik: batzuek akziozko filmari dagokion narratibotasuna ez izatea leporatu zioten, “erritmo geldoa” gaitzetsi zuten; kritikari batek, esate baterako, “Blade Crauter” deitu zion, “Blade Arrastaria” –korrikalariaren orde–. Gainerakoek txalo egin zioten gaien konplexutasunagatik, eta estetikagatik.

AEBetako txarteldegietan ez zuen aparteko arrakastarik izan, bai ordea mundu zabalean. Ondoren, bigarren gaztaroa izan zuen filmak, lehena baino hobea: bideoklubetan harrera itzela izan zuten *Blade Runner*-en aleek, behin baino gehiagotan ikusiz aberasten den lana baita. Esanguratsua da gogoratzea DVD formatuan kaleratu zen lehen pelikuletako bat izan zela.

## Ridley Scott eta Harrison Ford

Azken hamarkadetan bi izen horiek behin baino gehiagotan azaldu izan dira egunkarietako titular handietan. 1982an ere ez ziren hasiberriak, baina *Blade Runner*-ek jauzi kualitatiboa ekarri zuen euren ibilbidean. Filmaren zuzendaria, Ridley Scott, Should Shields herrian jaio zen (Northumberland, Ingalaterra), 1937an. BBCrako eszenatokiak diseinatzen egin zuen lan, eta hori zuzendu dituen filmetan nabari da. 1967an BBC utzi zuen, RSA agentziarako (Ridley Scott Associated) iragarki spot-ak egiteko. Hala, dirua lortu zuen bere lehen filma egiteko: *The Duellists* estreinako filmarekin, Cannesko zinemaldian epaimahaiaren sari berezia jaso

zuen Scottek. Hala ere, kritikak joko estetiko hutsa egitea egotzi zion.

1979 urtean zientzia fikzioaren gailurreko filma egin zuen: *Alien*. Filmeko lorpenik handiena, beharbada, *off espazioaren* erabilera da, munstroa iradokitzen duena, erakutsi beharrean. *Blade Runner*-en ondoren, 1985ean, *Legend* zuzendu zuen, artean gaztetxoa zen Tom Cruise aktore nagusi zuela. Kritikariak argudio sorta ikaragarria zabaldu zuten, azken finean, Scotten filma “kaka zaharra” zela esateko.

Gero *Someone to Watch Over Me* (1987) eta *Black Rain* (1989) filmatu zituen, baita *Thelma & Louise* (1991) goraitatua ere. 1992an film guztiz oportunistak egin zuen, *1492: Conquest of Paradise*. Oportunismoak, hala ere, porrot egin zuen txarteldegietan. Laurogeita hamarreko hamarkadan, film lotsagabeki komertzialak egin zituen: *White Squall* (1996) eta *G.I. Jane* (1997) –gaztelaniaz *La teniente O’Neal*, frantsesez *À armes égales*– Hauek ere, artistikoki zein komertzialki, porrot hutsak izan ziren. Gainera, azken film horren mezuan ageri den matxismo argiak –filmak, nolabait, zera esaten du: “gizonen munduan biziraun nahi baduzu, egin zaitez gizon”– pikutara bidali zituen *Thelma & Louise*-ekin hainbatek Scotti aitortu zioten “lurrin feminista”. Handik gutxira, ordea, arrakasta komertziala itzuli egin zen Scottenera, *Hannibal* (2001) filmari eta bereziki bost Oscar sari eskuratu zituen *Gladiator* (2000) luze-metraiari esker.

Eta Harrison Ford? Nola iritsi zen *Blade Runner* filmeko protagonista izatera? *Star Wars* saga-ko arrakastatik zetorren Chicagon jaioetako aktorea, eta *Indiana Jones* estreinatzeke urtebete falta zuen. Rol dramatiko baten xerka zebilen, eta hala heldu zitzaion *Blade Runner*-eko Rick Deckard pertsonaia. Filmak AEBetan izan zuen harrera epelaren aurrean, Fordek nahiago izan zuen egindako lanari buruzko komentariorik ez egitea. Denborak bere lekuan utzi ditu, ordea,



Fordek Deckard hotzari emandako sakontasuna, eta baita filma bera ere.

### Philip K. Dick Hollywooden

*Blade Runner*-ek Philip K. Dicken izena Hollywooden jo puntuan jarri zuen, eta geroztik hainbat film egin izan dituzte haren lanetan oinarrituta. Dick estreinaldia baino lehenago hil zen, baina beretzat propio prestatutako 40 minutuko frogatik ikusi ahal izan zuen. Idazlea, Hollywoodetik mesfidati patologikoa izan arren, honela mintzatu zen *Blade Runner* ikusi ondoren: “Filmak ikusteko era aldatuko du”.

Dicken obraz gain, filmak asko zor die Fritz Langen *Metropolis* luzemetraia-ri, Edward Hopperren *Night Hawks* koardoiari eta Dan O’Bannon eta Moebiusen *The Long Tomorrow* komikiari, giroa sortzeko iturri estilistiko modura erabili baitzituen zuzendariak. Gainera, Ridley Scottek Syd Mead artista kontzeptuala kontratatu zuen, eta Frantziako *Metal Hurlant* aldizkariaren eragin handia izan zuten. Izan ere, bertan kolaborazioak egiten zituen lehen aipatu dugun Moebius komikigileak. Hari filmean lan egiteko eskaintza egin zioten, baina berak nahia go izan zuen René Lalouxen *Les Maitres du Temps* filmean lan egin. Aurrerago, Moebius ederki damutuko zen erabaki hartaz.

Cyberpunk deituriko kulturaren erreferentzia nabarmena da *Blade Runner*. Era berean, bere estetika berria izan arren, oinak estilo zaharrago

batean ezarriak ditu: zine beltzean, hain zuzen. Nabari da Raymond Chandlerren istorioen eragina, lehen pertsonako narrazioa, protagonistaren jokabide moral eztabaidagarria... Bestalde, aipatzekoa da Luis Royo artistak filmaren afixarako egin zuen ilustrazioa, imitazio kontaezinak izan dituen, baita egun ere.

### Distopia giroa

1980ko hamarkadan egindako aurreikuspen ekonomikoak ageri dira etengabe filmean: Japoniak AEBak menperatuko zituela uste zuten garai hartan ekonomialari estatubatuar ezkorrenek. Hala, hizki japoniarrez betetako Los Angeles distopikoa azaltzen digu filmak. 2019. urteko L.A.-n erlauntza futuristak dira eraikinak, euri eternala eta itzala ororen gaintik. Xehetasunez beteriko giroa aberatsari esker, efektu hipnotikoa eragin dezake *Blade Runner*-ek. Erne.

Animalien presentzia oso garrantzitsua da filmean. Dicken liburuen are nabarmenagoa da, bertan azaltzen baitu animalia bizi gehienak hil egin zirela Gerra Terminalean, eta geroztik, kopia mekanikoak nagusitu direla. Filmean agertzen den pertsonaia bakoitza animaliaren batekin lotuta dago, zuzenean edo zeharka: Deckard adarbakarrarekin, Leon dortokarekin, Rachael armiararekin, Roy otsoarekin, Zhora sugearekin... Hain zuzen ere, erreplikanteak –gizakiaren itxu-

1980ko hamarkadan egindako aurreikuspen ekonomikoak ageri dira etengabe filmean: Japoniak AEBak menperatuko zituela uste zuten garai hartan ekonomialari estatubatuar ezkorrenek

www.laiaerretegia.com

laia sagardotegia

arkolla ouzoa 33 • Handarribia  
Tel.: 943 646 309  
info@laiaerretegia.com



## Iritzia: Koldo Almandoz, zinema zuzendaria

*Blade Runner*. Amesten al dute androideek ardi elektrikoekin? Asko idatzi da film honi buruz. Askok erabili dute bere lanetan pantaila handira eramandako liburu honek kontatzen duen istorioa. Bada Roy-Rutger erreplikanteak filmaren amaieran botatzen duen diskurtsoa buruz dakien makina bat zinemazale.

Bizpahiru alditan ikusi dut *Blade Runner*.

Lehenengo aldian gazteegia izaki, ez nuen gehiegi ulertu. Ongi oroitzen dut bigarrena. Nafarroako Unibertsitatean (OPUS-en) ikasle, teologia klasean proiektatu zigutenean. Irakurketa ezberdinetara irekia egonik, *Blade Runner* fedean doktrinatzeko arma gisa eraginkorra izan zitekeela jabetu nintzen. *Blade Runner*, *Solaris*, *Gattaca*, *Sunshine*, *Ghost in the Shell*, *Code 46*... zientzia fikzio film on guztiek dute, erantzunak baino, galderak sortzeko gaitasuna eta horrek bihurtzen ditu arrakastatsu... eta arriskutsu.

*Blade Runner*-ek gainera, ikusten dugun bakoitzean



JON URBE/A.P.

galdera berriak luzatzeaz gain, erantzun bat ere eman digu. "Nolakoa izango da etorkizuna?" galderarena hain zuzen ere. Zientzia fikzio film ugari egin da azken 100 urteotan, baina batek ere ez du asmatu hizpide dugun honek bezala etorkizunaren estetika deskribatzen. Ia beste guztietan etorkizuna hoztasun plastiko-metalikoz jantzita iragarri izan bada ere, *Blade Runner*-ek bete betean

asmatu zuen marrazten honezkero gure planetako megahiriak bihurtzen ari direna. Etorkizun laburrean, orain arte "hirugarren mundu"ko moduan definitu izan ditugun gizakiek beteko dituzte geure hiriak. Pelikulan bezalaxe, hizkuntzak, arrazak, bertokoak, kanpokoak geografia berean biziko gara. Tokio, Los Angeles, Dubai, Mexiko, Shangai... eta gisa honetako hiriak bisitatzea besterik ez dago, egun, *Blade Runner* filmeko figurazio aktore sentitzeko. Genetikaren afera ere ate joka dugu. Gizaki "natural" eta erreplikantearen mugak gero eta lausoagoak dira... Baina azken finean, honek guztiak axola al du?

ra imitatzen duten androideak– identifikatzeko darabilten Voigt-Kampff testean, animalieki buruzko galderak planteatzen dira, testa erantzuten duenaren enpatia maila, bere "gizatasuna" neurtzeko.

### Gidoia, berridatzia

Hampton Fancher-ek egin zuen gidoiaren lehen zirriborroa. *Dangerous Days* zuen izena, eta Dicken lanetik ambientazioa hartu zuen gehienbat, gizatasuna eta fedea bezalako gaiak baztertuz. Fancherrek Ridley Scott zuzendaria limurtu zuen AEBetan filmatu zezan, eta hainbat iturri lortu zituen filma finantzatzeko, batzuek gerora arazoak ekarriko bazituzten ere. Scott, hala ere, ez zen erabat konforme Fancherren gidoiarekin. Gizatasuna bezalako gaiak garrantzia emateko aldaketa batzuk proposatu zizkion Fancherri, baina honek ezezkoa eman ondoren, David Webb Peoples gidoilariari eskatu zion Fancherrena berridazteko.

Idazketa eta berridazketen poderioz, eta kontuan izanik Scottek ez zuela Dicken lana osorik irakurri, gidoia liburutik aldentzen joan zen. Nobelako gai batzuk gutxitu edo erabat

desagerrarazi zituzten: ugalkortasuna ala antzutasunaren arteko eztabaida, erlijioa, hedabideak, Deckard gizakia ote den edo ez, etxeko animalia erreal eta artifizialak, eta noski, emozioak.

Filmaren arrakastari tiraka, *Blade Runner*-en istorioa jarraitzeko hiru nobela idatzi zituen Dicken lagun K. W. Jens idazleak. Gaien norabidea eta filmarekiko inkongruentziak ikusita, segida bainoago, filmaren izen bereko mundu paralelo bat sortu zuela esan liteke.

Azken bitxikeria filmaren izenburuan dago. Bistakoa da Dicken nobelarena –*Amesten al dute androideek ardi elektrikoekin?*– ez dela egokiena arrakasta komertziala lortu nahi duen ekoizpen batentzat, baina Scottek zuzendutako pelikularen titulua ez zen hutsetik sortu. Alan E. Noursen *The Bladerunner* nobelan eta William S. Burroughsen *Bladerunner*, *A Movie* zinemagintza tratatuan oinarritu zen Hampton Fancher gidoiarentzako behin betiko izenburua aurkitzeko, *Dangerous Days* bazterrean utzita. Halabeharrez topatu zuen Burroughsen liburua, etxeko apaletan. Hala, izenburuaren eskubideak ordaindu zituzten, baina ez liburuaren, ez baitaukate edukian zerikusirik. ■

